


BIZITEGI ERAIKINAK
B MAILA

LAPURDI PLAZA 1



Florencio Mokoroa, 1936.

Deskribapena

Kokapen pribilegiatuko eraikina. Etxe uharte baten burua osatzen du, eta honako profil hau dauka: beheko solairua eta goiko sei solairu (azkena, atzeraemana). Mokoroak eraikina etxe uharteko buru izatea baliatu zuen, haren bolumenarekin garaiko estilo arrazionalistaren barruan lan egiteko. Irudi geometriko hori argiro antzeman daiteke, eta hustuketa joko bat erakusten du (adibidez, balkoi jarraituetan agertzen dena), bai eta ebaketa joko bat ere (fatxaden izkinetan, irekitako leihateen bidez). Aurrealdeko plano lauak nabarmendu egiten dira, apartamentu bakoitzaren sukaldeari dagozkion bao txikiagoekiko ageri duten ezohiko kontrasteagatik. Eraikina lurzorutik isolatuta geratzen da, lehen solairuko hegala handiari esker. Horrek kontraste handia egiten du barne lerrokaduraren forma kurbatuarekin, eta, emaitza gisa, irudi arinagoa lortzen da. Irudi arin hori, gainera, indartu egiten du izkinetako silueta hautsiak. Leihateek eta ondoz ondoko inposten eta erlaitzen hegala sorrazten dute silueta hori. Beheko solairuaren barnean atariaren kokapena bereizten da; honetan, akaberen diseinu arrazionalista nabarmentzen da.

B mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo lagatako elementuak: arotzeriak eta beheko solairuko estaldura.
- 2.- Elementu iraunkorrak: ez.
- 3.- Handitze edo aldatzeko murriztapen partikularrak: ataria aldaketarik gabe gordeko da, jatorrizko elementu guztiekin batera.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: terrazetako beirazko itxiturak eta beheko solairuko elementu gainjarriak kentzea.